ARANTZAZUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ARANTZAZU
Zelaia Auzoa, 1 - 48140 ARANTZAZU (Bizkaia)
Web - www.arantzazukoudala.com

Telefono interesgarriak / Telefonos de interes

Udal Bulegoak / Oficinas Municipales: Zelai Auzoa, 1	94 631 56 89
..... FAX	94 631 54 56
Osasun Zentroa / Centro Médico: Zelai Auzoa, 17-Bajo	94 673 71 00
Herriko Taberna: Zelai Auzoa, 1-Bajo	94 631 54 50
SOS-DEIAK:	112
Basurto-ko Eritetxea / Hospital de Basurto:	94 400 60 00
Cruces-ko Eritetxea / Hospital de Cruces:	94 600 60 00
Galdakao-ko Eritetxea / Hospital de Galdakao:	94 400 70 00
Anbulantzia (Osakidetza) / Ambulancias(Osakidetza):	94 410 06 03




EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

Planoa eta kaletegia
Plano y callejero



ARANTZAZV



KOKAPENA

Arratiako eskualdean dagoan bizkaitar udalerria. Arratia ibaiaren bazter bietan haraneko alde bat okupatzen dau, 94 m. baino goitzen ez diran bizkar txikien paisaia bategaz. Bizkaiko Antiklinalaren iparraldeari jagokola, igaduraren ondorioz materiale bigunetako mendilerro bat agertzen dan alde honek paisai ireki bat sorrarazo dau, landatzeko gai diran lurrak daukozana.

Jardueren arabera, industria da biztanlegoaren zatirik haundiena okupatzen dauan sektorea, betidanik nekazaria izan dan udalerri baten nekazal-Ianak baztertu eginaz.

Arantzazuren azalerea, 3,8 km'-koa da eta bere mugak, Igorre iparrean, Dima ekialdean, Artea egoaldean eta Zeberio mendebaldean dira.



Ikuspegi orokorra — *Vista Panorámica*

HISTORIA

Arratiako Merinaldeko elizatea. XIV. mendean berton bizi zen Bizkaiko Artzipresteen arteko bat, 1342ko Kapitulatuaren XXVIII tituluan erasota dagoen modura berton epailaritzan jarduten zuena.

Gernikako Batzar Nagusietan 66 zenbakidun botu eta ezarlekua eukan. Pedro Apostolu Deunaren parrokia XII. mendean sortu eta XIX.ean, patroi zatigarria eta hamarren jasotzailea zen Valdecarzana-ko markesak aurkeztutako onuradun batek atenditzen zuen.

Herri nekazari eta abeltzaina, arto, gari, sagar, gaztaina, arbi, indabako uzteak jaso eta behi, ardi eta txarri ustiatzen zuten, produktu hauek, Arratiako bidetik, Bilbo eta Gasteizera esportatzen zutela.

Iturrizaren iritziz, XVIII. mendean burdinola bat, errota bi, taberna bat eta Fausto Deunari eskeinitako baseliza bat eukazan.



Errotalde Errota (Zelaia) — *Molino Errotalde (Zelaia)*

AUZUNEAK

Arantzazu lau auzunetan banatuta dago:

Zelaia Auzoa: Etxe multzo bat osatuta dagoen auzogune bat.

Arantzazugoiti Auzunea: Sakabanatutako etxez osatuta dago, Txorietxe, Arandui, Usabel eta Elezkano barne.

Zalbide Auzunea: Sakabanatutako etxez osatuta dago, Bekoetxe eta Bizkerre-rekin

Olarra Auzoa: Sakabanatutako etxez osatuta dago, Ibarreta auzunea barne.

MONUMENTUAK

San Pedro Apostoluaren eliza

Eliza honek dituen objektuei buruzko lehenengo aipamenak 1677. urtekoak dira, eta aipatzen ditu, besteak beste, meza-jantzi morea eta andetako zapi baltza. Horrek erakusten du bazeudela Aste Santuko prozesio-erritua, jaiak... 1828. urtean berregin zen eta Durangoko Bidaurre arkitektoak eraiki zuen. Gurutze-formako planta eta egurrezko sabaia ditu, eta sabaiko egurra agerian dago. Portikoan ateburudun bao

San Pedro Apostoluaren eliza — *Iglesia de San Pedro Apostol*



bi ditu, bata hegoaldera eta bestea mendebaldera begira. Harlangaitz-hormak eta harlanduzko ertzak ditu. Eliza ez dago harlanduz eginda, eta eraikinaren benetako balioa lehen aitatutako gurutze-formako plantak, aurrealdeko frontoiak eta itxura sendoko harlanduzko dorreak dute. Hormetan, igeltsua kendu eta gero, aingeru biren irudiak agertu dira.

Oholtza erromanista mailakatua da, altuera bikoa, eta erdia kokatuta elizari izena ematen dion San Pedro dago. Goialdean tamaina txikiko Maria Sortzez Garbia dago, Semerik gabe, eta pinakuluan gurutze bat. Behealdean erliebean lau ebanjelariak dituen egurrezko frisoa dago eta, erdialdean, sagrarioa, alboetan Pasioaren eszenak dituela, eta atean Kristo bat duela. Altzariak, segurutik, 1983ko berregitean ekarritakoak dira.

Arantzazuko ermita bakarra **San Faustoren** izenpekoa da eta San Pedro elizaren portikoaren teilatuari atxikita dago, ondo-ondoan beraz. Gaur egun elkarte sozialtzat erabiltzen da eta ahaztuta dago haren erlijio-deitura. 1968an ermita izateari utzi zion, baina xelebrea izan arren, oraindik ospatzen da urriaren 13ko jaia. Bertako San Faustoren irudi bat Derioko Elizbarrutiaren Museoan dago gordeta.

Arantzazuko gainerako arkeologia- eta historia-ondarea honako hauek osatzen dute:

Udaletxea
Zelaiko zubia
Errotalde errota, Zelaia
Kanposantua, Atutxa Etxearen armarria
Bildosolako zubia

XVI. eta XIX. mende bitartean eraikitako **estilo ezberdinetako baserriak.** Baserri mota ohikoena solairu bikoa da, bertara sartzeko eskailera kanpotik duela.



Bildosola Zubia — *Puente Bildosola*

IBILALDIA. ARANTZAZU OINEZ

Ibilbidea Arantzazuko plazan hasten da, Bekoetxe ondotik pasatuko gara Zalbide auzorantza ekinez. Argiñao auzorantza asfaltozko bidetik igongo gara, igokera gogorra da. Argiñao auzoa eta Apala auzoko Aspuru baserria lotuten ebazan bidea lurrezkoa zan, baina gaur egun zementua botata dago. Bide honetatik igongo gara, Zeberioko PRll ere bertatik pasatuten dalarik. Zeberioko lurretatik gabiltza, eta ezkerretara dagoan bidetsu bat j arraitu ezkero San Adrián ermitara helduko gara. Apalan, Aspuru baserrira heldu ostean iturri eta j ausitako baserri baten ondotik pasatuko gara. Igorrerantza eginez, aldats behera dan lurrezko bide batetik Artabe- Aldekoara helduko gara. Auzo hau izatez Igorre da baina Arantzazugaz oso erlazionatuta dago, bertara joateko plaza ondotik pasatu behar dalako. Aldats behera jarraituz asfaltatutako bideak Artabe eta Goirira daroazku. Bidea jarraituz Arantzazuko plazara helduko gara lehenengo zatia amaituz.

Bigarren zatiari ekiteko Arantzazuko ikurra dan zubia gurutzatuko dogu, zubi hau ehundaka urte daukazan artea batek jagoten dau.Errota eta San Pedro parrokia ondotik pasatu eta N-240 errepidea gurutzatuko dogu, Istuzarre eta Txorietxera doan bidea hartuz.

Aurreratxoago Txorietxera doan bidea itxi eta Istuzarrerantza ekingo deutsagu, Usabelerantza jarraitu aurretik bertako iturrian ur apur bat edan ahal izando dogularik. Ehun bat metro tara bide hau itxi eta ezkerretara dagoan harri eta zementozko bidetik joango gara. Bide hau Aranduira doa, baina baserri hori baino lehenago ezkerretara hartuko dogu. Lehenengotan aldats gitxigaz baina gero gehiagogaz Laurkin ingurutik pasatuko gara. Dima eta Igorreko lurretatik gabi1tza.

Torreara helduten gara eta hemendik ezkerretarantza eginez, Olabarriko bidea jarraitutea besterik ez daukagu, lehenengo Orobitik eta gero Errotazar baserri ondotik pasatu eta Arantzazuko plazara helduteko.

Ibilbidearen luzeera: 9,4 km.
Iraupena: ordu 2 eta 55 minutu.



Ibilbidea — *Senderismo*

JAIAK

Arantzazu haraneko jairik garrantzitsuenak honakoak dira:

Pedro Apostolu Deuna: Ekainaren 29 (Herriko jaiak)

Fausto Deuna: Urriaren 13

SITUACIÓN

Municipio vizcaino perteneciente a la comarca de Arratia. Ocupa una zona de vega a ambos lados del río Arratia, con un paisaje de suaves colinas que apenas se elevan los 94 m. sobre el nivel del mar. La zona, donde aflora una alineación de materiales blandos, correspondientes al flanco norte del Anticlinal de Bizkaia, por efectos de la erosión, ha dado origen a un paisaje abierto, con suelos aptos para el cultivo, en general de carácter arcilloso, pero dado el progresivo abandono de la explotacion agrícola, se han expandido últimamente las repoblaciones confieras.

Por actividades, la industria es el sector que ocupa la mayor parte de la población, relegando las labores agrícolas, de un municipio tradicionalmente agrícola.

Arantzazu tiene una superficie de 3,8 km2, su población actual es de 300 habitantes.



Vista Panorámica — *Ikuspegi Orokorra*

HISTORIA

Anteiglesia de la Merindad de Arratia. En el siglo XIV residía en ella uno de los Arciprestes de Bizkaia, que celebraba allí tribunal, tal como consta en el título XXVIII del Capitulado de 1342.

Ocupaba el voto y asiento 66 en las Juntas Generales de Gernika. La iglesia parroquial de San Pedro Apóstol se fundó en el siglo XII. En el siglo XIX, estaba atendida por un beneficiado, presentado por el marqués de Valdecarzana, patrono divisero y perceptor de los diezmos.

En el siglo XIX J.R. Iturriza incluye la etimologia de la palabra "Aranzazu",que él traduce como "espinal" y cuya situación la coloca en una cañada.

Pueblo agrícola y ganadero, dada la tierra que es de carácter poco profundo y arcilloso se cultivaban sobre todo el forraje y el maíz, trigo, manzanas, castaña, nabo, alubia y explotaba ganado vacuno, lanar y de cerda, productos que exportaba a Bilbao y Vitoria por el camino de Arratia.

Según Iturriza, en el siglo XVIII disponía de una ferrería, dos molinos, una taberna y una ermita, dedicada a San Fausto.



Barrio Zalbide — *Zalbide Auzoa*

BARRIOS

Arantzazu esta dividida en cuatro barrios:

Barrio Zelaia: Compuesto por viviendas agrupadas formando un nucleo.

Barrio Arantzazugoiti: Formado por viviendas diseminadas, incluyéndose Txorietxe, Arandui, Usabel y Elezkano

Barrio Zalbide: Viviendas diseminadas, junto con Bekoetxe y Bizkerre.

Barrio Olarra: Viviendas diseminadas, junto con el barrio de Ibarreta.

MONUMENTOS

Iglesia de San Pedro Apóstol:

Las primeras menciones a objetos que posee la iglesia aparecen en 1677, como son una casulla morada y un paño negro de andas, lo que indica que existía un ritual de las procesiones de Semana Santa, fogativas, fiestas, etc. Reedificada en el año 1828 fue construida por el arquitecto duranges Bidaurre. Es una iglesia de planta cruciforme, con techos de madera a la vista. Dispone de dos vanos adintelados en el pórtico, uno al Sur y otro

Interior S. Pedro Apostol — *S. Pedro Apostoluaren barruekaldea*

al Oeste, sus paredes son de mampuesto y sillarejo en las esquinas, no es ciertamente un material de sillar pero lo meritorio está más como ya hemos dicho, en el plano, en la planta cruciforme, en el frontón que remata la fachada, en la torre de carácter muy sólido con su cúpula de sillares. En sus paredes se han encontrado una vez quitado el yeso dos tallas de ángeles.

El retablo es romanista escalonado a doble altura, ocupando el nicho central un San Pedro que da nombre y filiación a la iglesia. En la parte superior una Inmaculada sin Niño de pequeño tamaño. En el pináculo un crucifijo. En la parte inferior se encuentra un friso de madera donde se encuentran los cuatro evangelistas en relieve y en el centro un sagrario con escenas laterales de la Pasión y un Cristo resucitado en la Puerta. Todo el mobiliario posiblemente proviene de la restauración que se llevó a cabo en 1.983.

Ermita de San fausto

Bajo la advocación de San Fausto y tan cerca de la iglesia de San pedro que incluso comparte el mismo tejado del pórtico delantero, la única ermita de Arantzazu ya convertida no en ruinas pero sí en local social, olvidada ya su advocación religiosa. En 1968 dejó de existir como tal, pero curiosamente sí se celebra la festividad del 13 de octubre. Una imagen de San Fausto se conserva en el Museo Diocesano de Derio.

Completan el Inventario de Patrimonio Histórico-Arquitectónico de Arantzazu

La Casa Consistorial
El Puente de Zelaia
El Molino Errotalde, Zelaia
El Cementerio, el Escudo de Casa Atutxa
Puente de Bildosola

Caserios de diversos estilos, construidos entre los siglos XVI y XIX. Predomina entre ellos el caserio de dos plantas con escalera de acceso exterior.




Puente Zelaia — *Zelaia Zubia*

SENDERISMO

El recorrido comienza en la misma plaza de Arantzazu, y encaminándonos hacia el caserío Bekoetxe pasaremos por el barrio Zalbide. Iniciamos un duro ascenso por la carretera asfaltada que nos lleva hacia Argiñao. Hasta hace poco el camino que conectaba el barrio Argiñao y el caserío Aspuru del barrio Apala era de tierra. Hoy en día es de cemento. Comenzamos a subir por dicho camino, por ella también discurre el PRll de Zeberio. Estamos en tierras de Zeberio, y un caminito que sale a la izquierda nos lleva a la ermita de San Adrián. Una vez en Apala, concretamente en el caserío Aspuru abandonamos el PRll y pasaremos junto a una fuente y un caserío derruido. Encaminándonos hacia Igorre descendemos por el camino de tierra llegando a Artabe-Aldekoa. Dicho barrio pertenece a Igorre pero por su acceso, desde Arantzazu, está muy relacionado con el pueblo. Una vez llegado a Artabe-Aldekoa seguimos cuesta abajo por un camino asfaltado que nos lleva a Artabe y Goiri. Cerramos el primer anillo bajando por la carretera a la plaza de Arantzazu.

Para seguir con la segunda parte del recorrido cruzamos el puente atentamente vigilado por una centenaria encina, símbolo de Arantzazu. Pasamos junto al molino y la parroquia de San Pedro y tras cruzar la N-240 tomamos el camino que nos lleva hacia Istuzarre y Txorietxe. Unos metros más adelante dejamos el camino que va a Txorietxe para subir hacia Istuzarre. Podremos refrescamos en la fuente que está junto a la carretera para después continuar el camino que asciende hacia Usabel. A unos cien metros dejamos está carretera para coger una pista que antiguamente era de tierra y que ahora es de piedra y cemento. En este punto el camino que se dirige hacia la derecha nos lleva a Arandui, pero nosotros debemos seguir por el camino de la izquierda, que primero por suaves pendientes que luego se acentúan nos dejaran cerca Laurkin. Pasamos por tierras de Dima e Igorre y así llegamos a las proximidades de Torrea. Desde aquí solo nos queda seguir el camino de Olabarri, hacia la izquierda, para llegar a Arantzazu pasando por Orobi y cerca de Errotazar.

Longitud del recorrido: 9,8 km.
Tiempo aproximado: 2 horas y 55 minutos.



Plaza Zelaia — *Zelaia Plaza*

FIESTAS

Las principales fiestas de Arantzazu, son las siguientes:

San Pedro Apostol: 23 de Junio (Fiestas Patronales)

San Fausto: 13 de Octubre